

# EAJren mugimenduak «taktikoak» izatearen kezka azaldu du Redondok

Adierazi zuenez, PSE-EEK ez du egingo EAJ eta EArentzako «flotagailu» lana

Agentziak / Madril

Nicolas Redondo PSE-EEko idazkari nagusiak kezka agertu zuen atzo, EAJk denbora irabazteko mugimendu «taktiko» huts bat egin dezakeela iradokiz. Ildo horretan, jeltzaleei denbora ematearen alde agertu zen, eta «benetako aldaketa» bat eman bitartean ez dutela eurekin hitz egingo esan zuen.

MADRILEN, hango kazetari-ekin egindako gosari batean, hitz egin zuen Nicolas Redondo Terreros EAJk egin beharko lukeen aldaketari buruz. Zentzu horretan, Alderdi Jeltzaleari ohartarazi zion ez duela egungo egoeraz baliatu behar, mugimendu «taktiko» soil bat egin eta denbora irabazteko. Redondo Terreros, horrela, sakoneko aldaketa exijitu zien jeltzaleei, eta ez «legebiltzarrean bizirautera» zuzendutako estrategia bat.

Gauzak horrela, PSE-EEko idazkari nagusiak esan zuen sozialistek ez dutela «abertzale moderatuekin» hitz egingo, baldin eta «aldaketa egiazkoa» ez bada. Redondo Terreros adierazi zuenez, hori egin artean, PSE-EEK ez die egingo EAJ eta EARI «flotagailuaren» edota «tonto baliagarriaren» lana. «Ez dugu itzuli nahi 1998an hiruko gobernu haustera eraman gintuen egoera berera. Galdu dugu euskal politikagintzan bigarren aktorea izatearen bokazioa, eta ez doakigu gaizki», esan zuen.

Redondo Terreros, hala ere, EAJren aldaketa «erraz-

tearen» alde agertu zen. «EAJk sakoneko aldaketa bat ematea gustatuko litzaidake, eta agian beste alderdi batzuei ez zaie interesatuko, baina niri bai», adierazi zuen. Horren jarraian, EAJk EHrekin hausten duen herrietan sozialistek «mugimendu arrarorik ez» dutela egingo gaineratu zuen. «Ez da diputatuak edota zinegotziak berreskuratzen bideratutako aliantza arrarorik egingo EHrengandik aldentzea erabakitzen duten herrietan», ziurtatu zuen EAeko sozialisten buruak.

## EAJ kritikekin «indartsuago»

Ildo horretan, EAJrekin eztabaida «gogor, garrantz eta erradikaletan» ez direla sartuko gaineratu zuen, PPri ere gauza bera eskatuz. Batez ere Jose Maria Aznarren adierazpenei egin zien erreferentzia eskaera hori egiterakoan. Izan ere, Redondo Terreros uste du Arzalluz inoiz baino «euforikoago» agertu zela iragan igandean, «etsaia berriro ere aurrean zuelako».

Bestetik, EAJk alderdi



JUAN LAVIN / EFE

Nicolas Redondo Terreros, atzo, Madrilgo kazetari-ekin egiten duen gosariaren.

«bitxitza» jo zuen, «bere lideraren kontrako edozein kanpo kritikak buruzagi hori indartzea eta besteak haren inguruan biltzea ekartzen duelako».

Aznarrekin jarraituz, Re-

dondo Terreros adierazi zuen «taktikoki» akats bat dela beste alderdi baten barne arazoetan sartzea, eta poztu egin zen Javier Arenasek herengun bere kritiken «tonua leundu» egin zuelako.

## Nafarroako Parlamentuko batzorde bereziak irekiak izanen dira aurrerantzean

■ Era berean, urtero Foru Erkidegoaren egoeraz eztabaida egitea erabaki du Parlamentuak

Irene Arrizurieta / Iruñea

ORAIN ARTE komunikabideei itxiak zeuden batzorde bereziak irekiak izateko, Nafarroako Parlamentuko araudiaren 54. eta 75. puntuak aldatzea erabaki zuen atzo Legebiltzarreko osoko bilkurak. UPN, PSN, EA-EAJ, CDN eta IU-EBk alde bozkatu zuten, eta EH eta Batzarre abstenitu egin ziren. Hala ere, «isilpekoak» diren batzorde bereziak ez dira irekiak izanen.

Bestalde, Ganberako Araudiaren XIII tituluko I kapitulua aldatzea ere onartu zen Foru Erkidegoaren egoeraz urtero eztabaida bat egiten ahal izateko. EH abstenitu egin zen, eta EA-EAJk aurka bozkatu zuen. Nafarroaren egoerari buruzko eztabaida Parlamentuko lanurtearen lehenengo bilkura saioaren batean eginen da eta Foru Erkidego presidentearen karguhartzeko eztabaida egin da, edo hauteskundeak deitzeko tenorea iristen bada ez da egingen.

Alde bozkatu zutenek erakundeak «gardentasuna» lortuko duela adierazi zuten. Aitzitik, EHk araudia «zaharkitua» dagoela salatu zuen.

## PPk «zintzotasun falta» ikusten du EHrekiko hausturan

Agentziak / Gasteiz

LEOPOLDO BARREDA PPko Eusko Legebiltzarreko bozeramaileak «zintzotasun eta egitasun falta» ikusten du EAJk EHrekin hausteko erakutsi jarreraren. Esan zuenez, EAJ eta EHren arteko «hausturen errosario luzearekin» — akordioak Bizkaian puskatuz, eta ez Gipuzkoan —, «gizartea engainatu» baino ez dute egiten. Ildo horretan, «erabaki politiko serio eta formal bat» eskatu zuen.

Adierazpen horien atzean, Eusko Legebiltzarreko mahaiak PPren lege propo-

samen bat tramitera ez onartu izana dago. Izan ere, Leopoldo Barredak azaldu zuenez, PPk aurrekontuak aldatzeko proposamen bat egin zuen, eta Ganberako zerbitzu juridikoak aldaketa horren alde agertu arren, Legebiltzarreko mahaiak tramitera ez onartzea erabaki du, EA, EAJ eta EHko hiru ordezkarien botoekin. «Aurrekaririk gabeko gertakaria da, Jaurlaritzaren ekimen oztopatzaile bat, Legebiltzarreko mahaiaren sumisioarekin lortutakoa. Eta Euskal Herritarrokekiko akordioaren berpiztea adierazten du».

## Dimako Udala

IRAGARKIA

Dimako Udal Osoko Bilkurak, 2000-06-07an, burututako lan saioan, lehenbiziko onespina eman zion Dimako B motako Ordezko Arauetan aurrikusitako UD. 24an aldaketa zehatz bat egiteari. Aldaketa zehatz horren arabera, UD. 24an aurrikusitako hiru etxebizitza egitetik lau etxebizitzara egitera pasatuko da.

Eta ekainaren 23ko 2159/1978 Hirigintzako Planeamenduaren Erregelamenduko 128 atalerekin bat etorriz, jendea aurrera azaltzen da, hilabetetako epean espediente begibistan egon dadin eta interesdunek alegazioak aurkez ditzaten, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko Iragarki Oholean eta Bizkaian gehien hedatutako egunkarietako batean, honako iragarki honen azken argitalpenaren hurrengo egunetik hasita.

Era berean, ekainaren 23ko 2159/1978ko erregelamenduaren 120 atalean aurrikusitakoa aplikagarria da.

Diman, 2000ko ekainaren 7an. ALKATEAK

SEASKA, Iparraldeko Ikastolen Elkarteak, 2000ko irailetik goiti, Bigarren Mailako ikastetxeentzat, langileak bilatzen dituela, ondoko lanpostuentzat:

### Urte guzirako postuak:

- Euskara: postu 1 (Donaxiti)
- Biologia: 0,5 postu (Ziburu)
- Frantsesa: 1,5 postu (Donaxiti 1 - Ziburu 0,5)
- Dokumentalista: 1,5 postu (Baiona 1 - Ziburu 0,5)
- Hezkuntza Aholkulari Nagusi (CPE): 0,5 postu (Ziburu)
- Kirola: 0,5 postu (Kanbo)

### Ordezketak (postu osoak):

- Matematika: (Ziburu)
- Frantsesa: (Kanbo)
- Española: (Ziburu-Baiona)

### BETE BEHAR DIREN BALDINTZAK:

- Erakasgaiari loturiko LIZENTZIA (CPE posturako: Hezkuntzarako lizentzia)
- EUSKARAREN ezagutza on bat baita ere FRANTSESAREN
- ESPERIENTZIA erakaskuntza

Interesatuak direnek, idatz dezatela 2000ko Ekainaren 22a aintzin Seaskara - motibapen gutun bat + CV bat igorri (ez ahanztz telefono zenbaki baten azaltzea).

Seaska - Central Forum Pontots Bidea - 64100 BAIONA helbidera